



Kukutei harategiaren itxiera

Andoaingo Kale Nagusian harategi ezaguna duen urnietarrari elkarrizketa, negozioaren ateak ixteko egun gutxi falta direnean / 4-5

Eskalatzaileentzat boulderra Urnietan

Urnietako Kiroldegi berrituaren boulderrak 12,5 metroko bi horma ditu, 3 metroko altuerakoak eta zailtasun anitzekin / 12



Maite Alkain HK10 hoteleko gerenteari elkarrizketa. Sasoi betean dira, garai batean bezala / 2-3



Urnietan bizi da Wukron jaiotako Trihas Grebe, goi mailako lasterkaria / 10-11



Iturzaeta memoriala amaituta, Kontzejupeko txapelketari hasiera eman diote / 13

EUSKARALDIA 2022 ANDOAINEN

Aurkezpen ekitaldia BASTERO KULTURGUNEAN
Ekainak 28, asteartea. 19:00. Zatoz!





Maite Alkain zutik, Zuriñe harrerako lankidearekin batera, HK10 hoteleko harreran. AIURRI

“Berriro dena beteta dugula esatea ikaragarria da”

MAITE ALKAIN HK10 HOTELEKO GERENTEA

Pandemia atzean utzita, alaitasun olatuan murgildu da hotela. Maiatzaren 28ko asteburuan lepo bete zen hotela, eta, laster, parrilla jarriko dute martxan

Andoni Urbistondo URNIETA

HK10 hoteleko harreran bezeroak dabilta hara eta hona. Kafetegian ere jendea hamaiketako egiten, eta langileak pozik, bi urte eta erdiko epe gogorra atzean utzi dutelakoan. Maite Alkain gerentea ere bai, noski, bezeroak baitira bere arnas bidea.

Poza ematen du hotelera sartzeak. Alaitasuna sumatzen da langileen, zure aurpegian. Zein da momentuko egoera?

Normaltasunera iristen ari gara esango nuke. Bi hilabete eskas pasa dira pandemiako azken arau murriztaileak desgertu zirela, baina badirudi orain dela 10 urte gertatu den zerbait izan dela. Gizakion buruak badu gaitasun berezia txarrak diren gauzak zokoratzeko, baztertzeko, eta horrek laguntzen zaitu aurrera egiten. Oso nekatuta geunden pandemiaren kontuarekin, eta maiatza eta ekaineko lehen egunetan halako goraldi bat nabaritu dugu. Donostia da gure termometroa, eta Donostia atzeritarrez josita dago. Atzeritarrek gogoia dute, eta bertakoak ere bi urtez egin ezin izan dituzten ekitaldi pilo antolatzen ari dira, izan bataio, jaunartze, ezkontza, edo bestelako ekitaldiak.

Donostiatik hain gertu egotea erabakigarria da zuentzat.

Bai, guztiz, han hotelak betetzen badira, turistek norabait joan behar dutelako. Bestela ere, gurean prezioak lehiakorragoak dira, Donostian baino askoz merkeagoak, eta horrek ere laguntzen du. Maiatzaren 28ko asteburua zubia zen Frantzian, eta Pasaia Itsas Festibala ere antolatu zuten. Bertako bezero pila bat etorri zuren gurera, ostegunetik igandera hotela betetzeraino. Gure hotela, eta Gipuzkoako hotel asko bete ziren. **Logela librerik ez zenutela esan behar izan zenieten hainbat bezerori, beraz. Zer sentitu zenuen egoera horrekin?**

Poza, lasaitasuna, hainbeste espero genuen eguna iritsi zela. Udari begira ere agerikoa da erreserbak egiten ari garela, pandemia aurreko martxara bueltatzen ari garela pixkanaka... Pandemiaren bukaerak halako lasaitasuna ekarri du jendarte guztira, eta gure negozioan mugimendu handia. Azken orduko erreserba askorekin aritzen gara, gu eta hotel gehienak. Pandemiak utzi duen herentzia da hori.

Plangintza egokia egiteko ez da ona, baina ez dago besterik. Malgutasunez jokatu behar izan dugu, erreserbak bertan behera uzteko epearen inguruan, baina hori ere bere ohiko egoerara bueltatuko da pixkanaka.

Nola eragin dizue zuei ziurgabetasun horrek?

Azken orduko erreserbak bertan behera uztea baino, erreserba horien baldintzak aldatu behar izan ditugu sarri, eta ez behin bakarrik. Esan nahi dut, talde batek 40 gela gorde, hurrengo egunean 45, ondoren afariarekin, gero gabe... Horrek lan taldea asko aztoratzen du, lan sail askori eragiten dielako. Bezeroak mantentze aldera erraztasunak eman behar izan ditugu derrigor, baina aurrerantzean malgutasun horrek murriztu egin beharko du. Pandemian azken 24 orduko muga sartu arte erreserba bertan behera uzteko aukera ematen genuen, eta pandemia aurretik 48 ordu. Muga horretara bueltatu beharko dugu pixkanaka. Aldaketak egiteko aukera murriztu, baina ezer berezirik ez. Pandemia aurreko garaiko arauak bueltatuko dira pixkanaka.

Pandemia garaian ezinbestekoa izan zen arauen malgutasuna.

Erabatekoa. Azken uneen edonor kutsa zitekeen COVID-arekin, edo gertuko kontaktua izan. Bezeroen aldetik, baina gure lan taldearen aldetik ere bai. Gosa-ri, otorduekin eta beste ere egunero moldatu behar izan dugu. **Pandemia bukatu dela dirudien honetan, nola gogoratzen duzu garai ilun hori?**

Ba ezer onik ez, irauin egin dugula baizik. Zailtasun pilo bat eduki dugu, baina hemen gaude. Nire eskertza sendoen helarazi nahi nioke lan talde osoari, ontzi hau hondoratu ez zedin egin duten lan bikainagatik. Egoera oso larria zela ulertu genuen denok, eta harro gaude eutsi diogulako. Lan taldea da gure altxorrik preziatuena.

Ez zen samurra izango pandemia garaian hotel bateko gerentea izatea, ezta?

Ez... Besteak beste nire lana bezero gehiago nola erakarri aztertzea delako, eta ez dut jardun hori egin ahal izan. Pandemiak ekarriko zigun azken kolpeari nola aurre egin ematen nituen orduak: arauak nola bete, musukoa, garbiketa, aldi baterako enplegu-erregulazioko es-



Parrilla jarriko dute martxan egun hauetan. Argazkian, Alkain, Ixiar eta Niko parrillan ariko diren lankideekin batera. AIURRI

pedienteak... Nekagarria izan da, etsigarria. Baina bukatu da, itxuraz, eta orain ja gure jarduna hobetzeko aztertzen pasatzen dut lan jardunaldi gehiena.

Eta nola hobetu dezakezue?

Puntuazio ona daukagu Booking atarian, 8.5 nota. Gosariei puntuazio ona ematen diete bezeroek, baina ni hori nola hobetu bilatzen saiatzen naiz, demagun, Nafarroako olio eskainiz tostadetan. Gelatan detaile txiki bat eduki bezeroekin... Udari begira parrilla jarriko dugu martxan, ofizialki Sanjuanetako asteburuan, baina asteburu honetan proba batzuk egingo ditugu ziurrenik, karta osatzeko eta beste. Ea eguraldiak laguntzen gaituen...

Zer sumatzen duzu azken astetan etorri den bezeroarengan? Este-reotipoa mantendu da, aldatu da?

Oraindik goiz da hori esateko, baina sektoreko beste kideekin hitz egin dut eta ez genuen espero atzerriko bisitarien halako gorakada. Ezustean harrapatu gaitu. Euskal Herriko eta Espainiako turismoaren hazkuntza espero genuen, baina Frantzia, Belgika, Herbehereetako jendea etorri da, eta AEBetakoak ere

bai, espero ez genuenean. Ukrainako gerra hor dago, haientzat Ukraina eta gu eskualde berean gaude, eta ez genuen haien bisitarik espero. Donosti Cup txapelketan ere AEBetako talderen bat bada, galdetu nien ea etorri behar zuten eta baiezkua eman zidaten. Txapelketa horretan ere parte hartzen duten kirol taldeen marka hobetu dute, atzerriarrak pilo bat.

Bere garaian kirol taldeak erakartzeko egin zenuten apustuak eraginkorra izaten segitzen du.

Funtsezkoa. Izan futbola, eskubaloia edo saskibaloia taldeak, eta batez ere txirrindulari taldeak. Lan egiten dugun agentziak esaten digu txirrindularitza taldeak guregana etorri nahi dutela, eta gu, noski, gustura.

Eta zergatik ote, nahi hori?

Nire ustez eroso delako, apartatzeko toki asko dugulako, eta nahieran ibiltzen direlako hemen.

"BEZEROEK PUNTUAZIO ONA EMATEN DIGUTE BOOKING ATARIAN, 8.5EKO NOTA"

Pentsa Donostia erdigunera bidaltzen dutela talderen bat, autobusa garbitzeko eta beste. Itzulian hainbat talde izan genituen, mutilak eta neskak, Donostiako klasikorako ere baditugu. Vueltarako, abuztu bukaerarako momentuz ez dugu eskaerarik jaso.

Zer izango litzateke uda on bat zuretzat?

%100 betetzea utopia da, baina %80 edo 90 betekoa bagenu, balantzea bikaina izango litzateke. 52 gela dauzkagu, badira batzuk...

Bizitza, salneurriak, dena goraka doa... Logelen prezioa ere bai?

Beharko, baina orain etorriko dena hirugarren igoera litzateke, eta ezin da igoera oro bezeroaren bizkar gain jarri.

Nola salduko zenuke HK 10 hotela Donostian ostatu hartzea baina hobea dela?

Ezberdintasun garrantzitsuena logelaren salneurria da. Donostian 200 eurotik gora ordaindu behar da gaueko, gutxi asko, eta 300 euro ere bai zenbait ostatuan. Gurean nabarmen gutxiago balio du. Nire ustez gurean apartatzeko erraztasuna estimatzen du asko bezeroak, baita Donostiara garraio publikoa erabiliz

joan daitekeela, eroso. Azaltzen diegu non geratzen diren autobusak eta trenak, ze maiztasun duten, eta asko erabiltzen dute. Batez ere trena, azkarragoa delako. Autoan ez joateko gomen datzen diegu, aparkatzeko komeriak izan ditzaketelako, eta lortzekotan lurpeko aparkalekuak garestiak direlako. Otorduak egiteko orduan ere Donostiak zerbitzu onak ditu, baina jendea asko dago, eta ez da erraza otorduak egiteko tokiren bat bilatzea. Akaso txanda eman zain egon behar duzu, eta bezero batzuk nahiago dute gurean lasai-lasai afaldu, ondo ematen dugulako eta ez dutelako tokiren bat bilatzen egon behar. Gure aldeko beste ezaugarri bat Euskal Herriko beste herrialdeetara eguneko bisitak egiteko toki aproposan gaudela da, autobiatik kilometro erdira. Eta lan taldearen adeitasuna, noski (barrez).

"PROBA BATZUK EGIN DITUGU ETA SANJUANETARAKO PARRILLA JARRIKO DUGU MARTXAN"

Zenbat zarete?

20-22 lagun.

Han eta hemen entzuten diren zailtasun berak al dituzue langileak lortzeko?

Lan talde egonkorra dugu. Arazo horiek ez dira berriak, urte dezente daramatzagu. Kontua da belaunaldi berriak sartu direla merkatuan, eta horiek ez dutela, akaso, aurreko belaunaldiak lan arau edo ordutegiekin zuten, genuen malgutasuna. Moldatu egin beharko dugu. Ulertze aldera, Frantzia eguerdiko 13.30tik aurrera bazkaltzeko zailtasunak izango dituzu aurrerantzean, eta hoteletan gauerditik aurrera kopa bat hartzea ere gero eta zailagoa izango da. Langilerik ez delako egongo.

Zuen bezeroak zer egiten du ostatua eta gosaria bakarrik hartu, edo afaria ere bai?

Gero eta gehiagok afariarekin hartzen dute, aurreko erantzunean azaldu dudanagatik. Bezeroek esaten didate, 'Getariara goaz egun pasa, bazkaltzeko edo afaltzeko tokiren bat?' Eta nik baietz, baina zenbat ordaindu beharko dutena ohartaraziz. Tarteke herriko beste jatetxeetara ere bidaltzen ditugu bezeroak, Zaldundegira edo Oianumera, eta gustura bueltatzen dira.

Hotelak jendea erakartzen du herriara, uste duzu ezagunak zaretela herrian, baloratzen dela halako ostatu bat egotea herri txiki batean?

Guk balioa ematen diogu Urnietari, baina herriko beste enpresa eta komertzio guztiek ematen dioten neurri berean. Enpresa langileak, hornitzaileak etortzen direnean badakite hemen zer eskaintzen dugun. Erraustegira datorren lan talde bat daukagu, eta inguruko industria guneetara etortzen den jendea ere bai. Eragile ekonomikoa gara, baina herriaren sustapena ekar dezaketenean ekitaldiekin inplikaturik gaude.

Bukatzeke, zer esaten dizute bezeroek, hotela uzten duenean?

Kataluniako eskubaloia talde bat eduki genuen ez aspaldi, Zarautzen jokatu zuena, Gironako Bordils taldea. Oso gustura egon zirela esan ziguten, eta nota bikaina eman ziguten. Norbaitek esan zigun, 'nigatik balitz 10 bat emango nizueke'. Pozik sentiarazten zaituzte horrelako esanek. Aintzat hartu bezero berriek booking atariko notari asko erreparatzen diotela, eta guk 8.5ekoa dugu. Ez da txarra.

Xabier Lasa ANDOAIN

Hogeita hamar urteko ibilbidean Belen Salgado -emaztea- eta Juan Joxe Iguaran laguntzailea alboan izan ditu Arrutik.

Bezeroak ariko zaizkizu galdezka ixtera zoazela-eta, ezta?

Bai, halaxe da. "Orain zer egin behar dugu zu gabe?", galdetzen didate batzuek, eta ulertzekoa da, "ohituretako animaliak" baikara guztiok ere, eta gogoko baitugu antzeko gauzak egitea beti, segurtasuna ematen dizutenak; egunerokotik zerbait aldatuz gero, hor galtzen gara! Nik zer erantzungo diet, bada? Hauxe, batzuei: "zuen diruak berdin balio du hemen eta han, eta bezero ona denari edozein tokietan egingo zaio ongiatorria".

Hori bai, gertuko dendetan kontsumitzea aholkatzen diet, nahiz eta harategien panorama urritzen ibili. Halaber, nongo txekorrekin lan egin dudana aipatzen diet: Etxabe (Leizotz auzoa, Andoain), Bekoborda (Goiburu auzoa, Urnieta) edo Aia, Asteara edo Zizurkilgo zenbait baserri.

Gauzak diren bezala, bezeroen artean lagun asko egin dut, konfiantza hartu dugu elkarrekin denboraren poderioz, eta ez da erraza ahazten urtetan eduki dugun gizalegezko tratua hori. Horrek ematen dit penarik handiena, harategia itxita. Esaten diet, bai, noizbehinka geratuko garela Andoainen zerbait hartzeko, baina ez didate sinesten! Nik, berriz, egiatan ari naizela erantzuten diet.

Urnietarra zara jaiotzez, baina ondo andoaindartzua honezkero.

Bai, esaten dizudan bezala, Andoainen egin dut bizitzaren erdia, eta etxean nagoenean Urnietako kalera apenas jaisten naiz. Han nire belaunaldiko jendeak ezagutzen nau, baina hortik beherakoek, apenas.

Kukutei izenak non du jatorria? Zeu Urnietako baserri horretako semea al zara?

Ez, bada! Jendeak hala uste badezake ere. Kontua da orain 35 bat urte, Lasarten lanean arin nintzenean, zenbait lagunak bazkideen ondasun-erkidegoa sortu genuela, eta Kukutei jarri geniola izena hari. Gerora, handik Andoainera etorri nintzenean, izena ere nerekin ekarri nuen. Jose Luis Kalegain urnietarrak zeukan harategia bertan, eta hari traspasoan hartu nion. Ni, berez, Lekun

"Urteekin, bezeroen artean lagun asko egin dut"

JOSEBA ARRUTI ANDOAINGO KALE NAGUSIKO KUKUTEI HARATEGIKO ARDURADUNA
Negozioa ixtera doa ekainaren bukaeran. Kukuteik ia 30 urte egin ditu Kale Nagusian, eta ezinbesteko saltoki bilakatu da hainbat andoaindarrentzat



Joseba Arruti, Kale nagusiko Kukutein. AIURRI

baserrikoa naiz, Ergoien auzokoa. Urumeako autobidea egin zutenean, Plazaolako trenbide zaharreko akueduktua eta bi karobi zoragarriez gain, Lekune geure baserria ere aurretik eraman zuten. Orduan, izen bereko etxe berria lur-sail berean, beheraxeago altxatu genuen, eta bertan bizi naiz.

Jakin al liteke zeintzuk diren pertsona betirako jaisteko arrazoiak?

Bai, denak harritu egiten zaizkit esanez 61 urterekin oraindik ez daukadala adina erretiroa hartzeko. Bere garaian pentsio plan batean sartu nintzen, eta horrek asko erraztu dit erabakia. Egia esan, arrazoi ugari pilatu zaizkit azken aldian. Batetik, lokalaren errenta igo eta igo ari zait; nahiz eta nahiko zaharra izan, ez dauka antigualeko errenta. Eta bestetik, salmenta jaisten ari da. Bi arrazoi horiei erantsi behar zaie ez nagoela batere eroso azken aldian sortu den giro nahasiarekin, etorkizun iluna ikusten dut. Salneurri guztiak igotzen ari dira, gasolina, argia... Ukrainako gerraren aitzakia ez bada beste edozer gauza erabiltzen dute, eta inpresioa daukat espekulazioaren erreinua bihurtu dela mundua, dirua erraz irabazteko testuinguru ezin aproposagoa ikusi duten espekulatzaileak nagusi! Zeuk ere negozioko salneurriak igotzera behartzen zaitu egoera honek, eta gaizki geratzen zara bezeroekin.

Inor ez al zaizu tentatu ez negozioari jarraipena emateko?

Lokalaren errenta altuak, bertan egin beharreko erreformek edo makinaria berritzeak nahiko ezinezkoa egiten dutela negozioarekin jarraitzea, iruditzen zait. Bestela ere, harakinaren gremioa galtzen ari da; geroz eta gazte gutxiagok ikasten du ofizioa, haragiaren zatiketa nola egiten den eta abar. Zoaz harakin baten bila, eta ederki kostatuko zaizu topatzea! Beste zenbait ofizioen (iturgina, igeltseroa...) antzera ari da gertatzen.

Bestelakoan ere, gaurko belaunaldiak ez dute oso bideragarria ikusten autonomo gisa

"HARAKINAREN GREMIOA GALTZEN ARI DA; GEROZ ETA GAZTE GUTXIAGOK IKASTEN DU OFIZIOA"



Hogeita hamar urte egin ditu Kale Nagusiko Kukutei harategian. AIURRI

lan egitea edozein motatako merkataritzan. Gastuak nonahik ateratzen zaizkizulako, bu-ruhausteak etxera eramaten dituzulako, jendaurreko ordutegiaz kanpo ere aurreko lanak edo larunbatetan ere sakrifika-tzea eskatzen dizulako...

Salmenta urritzen ari dela diozu.

Halaxe da. Beti-betiko bezeroa- rekin funtzionatu izan dut asko, eta horietako batzuk badoaz poliki-poliki, edo zahartzen ari direnez jaitsi egin dute kontsumoa, normala denez. Gazteak ere etortzen zaizkit, baina horiekin gehiago nabaritzen da gizarteko kontsumo-ohiturak nola ari diren aldatzen: nola jotzen den saltoki handienetara gero eta gehiago, haragiaren kontsumoa gainbehera doala, sukaldean gero eta gutxiago egiten dela, eta, azkenik, aurrez prestatutako jakiak gora doazela.

Esango nuke haurrak direla harakinen aliaturik finenak. Ederki asko bereizten dituzte kalitate oneko eta txarreko krocketak edo sanjakoboak! Gurasoek ez die erraz sartuko ziria, bexamela kimikoarekin ala naturalekin egindako sanjobo batekin!

Harakinaren negozioarekin jarraitzea pentsatuko banu, argi daukat zortzi metroko mostra-

dorean, bi haragitarako prestatuko nituzkeela, eta beste sei txarkuteriarentzat eta aurrez prestatutako jakientzat.

Nola ikusten duzu merkataritxikien egoera, etorkizuna?

Inguruko dendariengan ezin egona eta etsipena nagusi dela sentitzen dut, lehen aipatu dudan giro nahasi horren ondorioz. Dena daukagu kontra: saltoki handiak irekitzea eta horiekin konpetentzia handitzea, salmenta jaitziera, generoen prezioen igoera, atzetik familiarrik ez ikustea negozioari eusteko lain... Arrazoi horiek gutxi ez-eta, ditxosozko Ticket Bai hori ere heldu zaigu, eta jendea aztoratuta dabil.

Hemendik aurrera zertan igaro behar duzu denbora?

Oraindik ez daukat argi zer egin. Hori bai, erlojuaren menpe ibili gabe aspertu nahi nuke, ez baitakit zer den gauza horixe. Ea eguna orain baino luzeagoa egiten zaidan, horixe jakiteko jakinmina daukat. Terrazaren batean eseri eta egonean egote-ko edo pasioan ibiltzeko aukera edukitzea, ederra behar du izan hori! Bestalde, etxeko azpikaldean baratza eta animaliak (astoak, ahuntzak...) badauzkat, eta horiei ere eskaini beharko diet denbora.

"INGURUKO DENDARIENGAN EZIN EGONA ETA ETSIPENA NAGUSI DELA SENTITZEN DUT"

"SALNEURRI GUZTIAK IGOTZEN ARI DIRA... ESPEKULAZIOAREN ERREINUA BIHURTU DA MUNDUA"

Andoni Alvarez Lete, udal hauteskundeetarako prest

EH Bildu izan da 2023ko Udal hauteskunderi begira hautagaitza aurkeztu duen Andoaingo lehen alderdia. Aurreko ostiralean egin zuten agerraldi jendetsuan, koalizioak eta hautagaiak erronkari eusteko prest daudela adierazi zuten

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

EH Bildu koalizioak aurkezpen ekitaldiak deitu zituen hainbat udalerritan, urtebete barru mar-txan jarriko den ziklo politiko berria aintzat harturik. Andoi-nen EH Bilduk hitzordu hori ostiralera aurreratu zuen, eta Goikoplazara hurbildu zirenek bigarren hauteskundeetara aurkezteko prest dagoela entzun ahal izan zioten Andoni Alvarez Leteri: "2019an nuen ilusio eta indar berberarekin nago, eta EH Bilduko oinarriak horrela erabakitzen badu, alkategai izateko nire burua aurkezteko prest nago berriro ere". Babes zabalaren jakitun izanik ere, lanean hasi beharra dagoela azpimarratu zuen: "Urtebete geratzen da hurrengo udal hauteskun-deetarako. Denbora asko dela dirudi, baina ez da horrenbeste. Ez da horrenbeste, udal gobernu honi alternatiba eraiki nahi diogulako". Izan ere, Alvarez-entzat etsigarria izan da zerrenda bozkatuena oposizioan utzita sozialistek eta jeltzaleek elkarrekin aurrera eraman duten agintaldia: "Udal gobernu honen jarduna dezepzio handiarekin bizitu duela esan du. Honetarako oztopatu ziguten guri alkatetza eta gobernu hartzea? Benetan, egin duten aliantza



Andoni Alvarez Lete Goikoplazan, aurreko ostiralean. AIURRI

hau ona izan dela Andoainentzat? Datuek kontrakoa esaten dute".

PSE-EEk eta EAJ-PNVk formula errepikatzeko aukeraren aurrean, soluzio bikoitza aurkitu beharra nabarmendu zuen Alvarezek: Lanean jarraitzea, eta lan hori guztia taldean egitea. "Ez da erraza izango, are gehiago, zaila izango da. Baina ez da ezinezkoa. Guztion artean egin beharreko bidea izango da. Eta ziur egon saiatzeak merezi duela". Ekitaldira hurbildu ziren dozenaka herrikideen txaloak jaso zituen Alvarezek.

Gobernuaren jardunari kritika

Ainara Rodriguez zinegotzi ohiak ireki zuen ekitaldia. 2011n egoe-ra ekonomiko latza aurkitu zutela gogoan hartu zuen, eta 2019an altxortegian lau milioi euro utzi zituztela gogora ekarri: "2016-2019 artean, ur hoditeria berritzeko hiru milioi euro inbertitu ziren. Zenbat tramo aldatu dira agintaldi honetan? Zero. Udal Liburutegi berria, Emakumeen Etxea, Parte hartze aktiborako zeuden guneak... dena dago geldirik".

Ekitaldian Ainhoa Astuy dantzariak ere parte hartu zuen.



ALKATEGAIEN AURKEZPENAK, BANAN BANA

JON ANDER UBEDA KAZETARIA

Herritar askok eta askok ondo ezagutzen duten hautagaia

Agerraldia hasteko zain gaude EHBildu zaleak eta kazetariak. 19:00ak jotzear dira, eta Fernando Narciso Kontzejupetik igarotzen ari da. Andoni bertan dela erreparatu eta harekin geratu da hizketan. PSE-EEko hautetsia izan zen agintaldi ezberdinetan, eta

egun Ibarrako udaletxeko zinegotzia da. Ez da agurtze hutsa izan, denboratxoa eman dute hizketan. Solasaldi horretan erakutsi duen patsada berdinarekin hurbildu zaie pilotan ari diren haurrei. Distantziatik ez diot entzuten, baina nago izenez ezagutzen

dituela guztiak. Taulagainean igo da, eta gogotsu nabari zaio. Koalizioarena eta herritarrena, duen babes zabalaren jakitun da. Nor da Andoni Alvarez Lete? Herria ondo ezagutzen duen eta herritar askok eta askok ondo ezagutzen duten hautagaia. Prest dago.



"Via Pirinenca-Piriniotako Bidea"ren aurkezpen ekitaldia. GURESKU

Piriniotako Bidea, Gure Eskuk antolatuta

Gure Esku mugimenduak, Kataluniako elkarte ezberdinekin batera, erabakitzeo eskubidearen aldeko ekimena egitera doaz. Uztailaren 2an Higer lurmuturretik Creusera doazen 300 mendi gailurrak argiztatu nahi dituzte

Jon Ander Ubeda URNIETA
Gure Eskuk hona aurkeztu zuen Piriniotako bidea ekimena: "Uztailaren 2an, katalan eta euskal herritarrok 300 gailurretik gora argiztatuko ditugu Pirinio osoan zehar. Farol bereziak eta linternak baliatuz, argi-lerro bat osatuko dugu Higer lurmuturretik Creusera, Atlantikotik Mediteraneora, gure herrien autode-

terminazio eskubidea aldarrikatzeko. Euskal herritarrok 115 gailur argiztatuko ditugu, Jaizkibetik Benasqueraino".
Beterri-Aiztondoko biztanleek Munagirre mendia argiztatu behar dute. Oiartzunen dago, Artikutzara bidean. Andoain, Urnieta, Hernani eta Astigarra ga udalerrietako biztanleei hara joateko deia luzatu diete.

Izen-ematea
Gureesku.eus webgunearen bidez egin daiteke, baina Urnieta taldeak postua ipiniko du hurrengo egunetan:
• Ekainak 17, ostirala. 19:00, Guria ondoko plazatxoa.
• Ekainak 18, larunbata. 12:00, Etxeberri plaza.
• Ekainak 23, osteguna. 19:00, Guria ondoko plazatxoa.

Lurrazpiko pasabidea zabalik

Aurrerantzean, urnietarrek ez dituzte trenbideak zeharkatu behar andenetera edo bidegorrira joateko, azpiko pasabidea dute horretarako. ADIFek bigarren lanari eman dio hasiera, andenen altuera nibelatzeko asmoz. Gauz egingo dituzten lanak izango direla ohartarazi du Udalak.



AIURRI



Antzezlanaren iragartzeko zabaldu duten argazkia. SAROBE

"Zenbatgarrena?" antzezlanaren herriko artisten eskutik

Urnietako Udal Antzerki Tailerraren Ikasturte amaierako saioa igandean izango da, iluntzeko 19:00tan hasita

Erredakzioa URNIETA
Ikasturte amaiera aldean egin ohi duen emanaldia prestatu du Urnietako Udal Antzerki Tailerrak, eta, aurten, ekainaren 19an izango da: "Zenbatgarrena?". Arratsaldeko 19:00etan hasiko da ikuskizuna, Saroben. Doako gonbidapenak izango dira, eta eskuragarri egongo dira Sarobeko leihatilan eta Bibe plataforman.
Aurten, Antzerki Tailerraren erakusketak bi zati izango ditu. Lehenengo zatian, tailerraren egunerokotasuna jendeari hurbilduko diogu, tailerreko saio baten garapena zuzenean senti dezan. Bigarren zatia, igogailu batean gertatzen diren elkarriketa gehienak denboraren gainera biratzen direla dioen mitoak, gezurtatzen eta desmuntatzen, lagunduko du. Izan ere, igogailu baten barruan gertatzen diren sei eszena horietan, elkarriket-

tak eta bidaiak askotarikoak izango dira: bidaiak inizatikoak, abenturazkoak, errromantikoak, mistikoak, etab. Beraz, Mondragon Orkestraren abesti haren hitzak parafraseatuz: "Gurekin igogailu batean bidaiatu, gozatu nahi baduzu, eta disfrutatu..."

Lantaldea
Aktoreak: Arantxa Zabala Atxukarro, Conchi Gonzalez Cascajar, Esther Modia Castineiras, Laura Claudino Estevez, Miguel Rodenas Serrano, Pilar Brandariz Barra, Xabier Odriozola Jauregi. Zuzendaria: Mikel Agirregomezkorta.

GONBIDAPENAK
ESKURAGARRI DAUDE
SAROBEO
LEIHATILAN ETA
BIBE PLATAFORMAN

Emakumeen Jabekuntza Eskolaren amaiera-ekitaldia

Herriko bertso-eskolako emakumeen eskutik bertso-saioa izango da Lekaion, ostegun arratsaldean

Erredakzioa URNIETA
Amaierako saio honetan, udaberriko jabekuntza eskolaren balorazioa egingo dute. Aldi berean, parte hartu duten emakumeek beren artean elkar eza-gutzeko aukera izango dute.

Datozen edizioei begira proposamenak partekatzeko eta jasotzeko aukera aprobetxatzeko deialdia egin du Udalak. Bertso-saioa iragarrita dago ostegun honetarako, arratsaldeko 17:30ean Lekaion hasiko den saioan.



Gora Kaletxiki Bandak eta Hogar Extremeño elkarteak antolatu zuten jaialdia. Berrondo aritu zen aurkezle lanetan. AIURRI

Kontzertu solidarioa

Eritasun genetikoak, progresiboak eta degeneratiboak jasaten dituzten gipuzkoarren topagunea da GENE elkarteak. Haiekiko elkartasunez emanaldi solidarioa antolatu zuten Andoainen. Bideo-sorta ikusgai dago Aiurri.eus webgunean

Xabier Lasa ANDOAIN

Ozenki abesbatza, Euskaros taldea, Gora Kaletxiki Banda, Urki dantza taldeko eta Hogar Extremeño dantzariak igo ziren oholtzara. Eta baita Puy Arruti eta Asun Garcia GENE elkarte-kideak ere. Azken hauek, hunkituta, eskertza adierazteko. Kultura elkartasuna adierazteko tresna indartsua da, oraindik orain.

Euskaros taldea ezagun egin zen 70eko hamarkadan, dantzaldi giroan euskaraz abesten nabarmendu zena. Taulagainera igo ziren garai hartan ezagun egin ziren bi abesti eskaintzera.

Ondoren, Jose Mari Oiartzabalek sortutako hainbat pieza eskaini zituzten. Bera aritu zen zuzendari lanetan, gainera. "Asun Garcia", "Beti hor zaude", "Ama" eta "Sustraiak han eta hemen" abestiak eskaini zituzten. Amaia Santana, Loli Parrizas eta Irati Jauregi abeslariak eta Ozenki abesbatza eta Gora Kaletxiki Banda izan zituen Oiartzabalek bere esanetara. Mikaela Etxeberrriak eskaini zuen "Xalbadorren heriotzean" eta "Lau teila-tu" kantuekin amaitu zen gala.



Loli Parrizas abeslaria eta Asun Garcia andoaindarra, eskertza adierazten. AIURRI



Egaña, Moreno, Garcia eta Sagaseta "Sustraiak han eta hemen" dantzatzen. AIURRI



Ramon Beraza zuzendaria. AIURRI

Easo Abesbatzaren emanaldia

Easo Abesbatza Beteranoak kontzertua eskaini zuen Bastero Kulturgunean, Berazaren zuzendaritzapean

Xabier Lasa ANDOAIN


Kultur ekitaldi beteriko asteburua izan zen Andoainen, aurrekoan. Easo Abesbatza Beteranoak kontzertua eskaini zuen, Ramon Berazaren zuzendaritzapean. Emanaldian zehar protagonismo berezia hartu zuten abesbatzako kide diren hainbat andoaindarek. Jesus Mari Irigoien lehen

tenorea, Iñaki Calleja bigarren tenorea eta Antonio Calleja baritonoa. Bestalde, gonbidatu berezi modura, Myriam Ulangak pianoa jo zuen.

Antonio Calleja, gainera, bi "Elurra" eta "Ume eder bat" abestietan bakarlarik gisa aritu zen. Emanaldiaren hainbat bideo ikusgai daude, webgunean.



Antonio Calleja baritonoa. AIURRI



Myriam Ulanga piano-jotzailea. AIURRI



andoaINDARRA
euskaraz



Agus Barandiaran lehen planoan, eta atzean dantzariak. AIURRI

Egape dantza taldearen enegarren erakustaldia

Agus Barandiaranek gidatzen duen Korrontzi musika taldeak eta Egape dantza taldeak maila handiko emankizuna eskaini zuten elkarrekin. Euskal tradizioa eta berritasuna uztartu zuten emanaldi osoan zehar

Xabier Lasa ANDOAIN
Energia eta giro oneko gaua izango zela iragarri zuen Agus Barandiaran Korrontzi taldeko liderrak aurretik, eta bete-betean asmatu zuen. Egia esan, ez zeukan zaila asmatzen, ezin besterik espero, musikari bikainei eta beren doinu dantzagarriari, Egapeko dantzari trebeak eta ikusle gisa Urrietako dantza zale mor-

doa batzen bazaizkie ikuskizunera. Urrietako publikoa ikuskizun bizia eta alaia ikusteko irrikatan azaldu zen, eta gogo bizi gizatu zuen dantza eta musika, tradizioa eta joera berri-tzaileak ezin hobekiago uztartzen dituen emanaldiarekin. Edu Murumendiarazek gidatzen dituen dantzari eta gazteek dantza eta doinu desberdinez osatutako

koreografia bikain asko eraman zuten oholtzara. Sinbiosi ezin perfektuagoa lortu zuten dantzariak, Korrontziko Agus Barandiaran (trikitixa eta ahotsa), Kike Mora (kontrabaxua eta baxua), Alberto Rodriguez (gitarra eta mandolina) eta Ander Hurtadorekin (bateria). Alde horretatik, mereziak izan ziren emanaldi osoan jaso zituzten txalo zartak.

Dantza eta musika uztartuta



Egape dantza taldeko beterranoak. AIURRI

Gazteak eta helduak taulagainean Egape dantza taldearen baitan talde ugari ari dira dantzan. Larunbat gaueko emanaldian aurreko hilabeteetan Edu Murumendiarazekin landutakoa erakusteko aukera izan zuten.



Ikusle ugari elkartu zen Plazido Muxika plazan. AIURRI

Ikusmina piztu zueen Ikusle ugari hurbildu zen Plazido Muxika plazara. San Juan bezperan gertatu ohi den bezala, jendetza batu zen plazan. Hasi eta ordubetera etenaldia egin zuten, euriagatik. Berriro ekin zioten, aurrikusitako emanaldi guztia osatuz.

Sari banaketa ekitaldia

Hogar Extremeñok literatura, argazki eta marrazketa lehiaketetako sariak banatu zituen igandean

Xabier Lasa ANDOAIN
Belen Moreno elkarteko presidentek gidatu zuen igandean literatura, argazkigintza eta marrazketako lehiaketaren sari banaketa ekitaldia. Ekitaldi horrekin amaiera eman zioten ekainaren 4an abiatu zen XLIII. Kultur Asteari.

Pintura lehiaketa
1. saria (6-9 urte): Endika Rey. “La Concha”.
2. saria (6-9 urte): Unai Caballero. “La casa en la montaña”.
1. saria (10-12 urte): Hegoa Palacios. “Nubes de ensueño”.
2. saria (10-12 urte): Peru Jorge. “El rey de la selva”.

Literatur lehiaketa
1. saria (gazteak): Maria Castro. “Mi burbuja”.
2. saria (gazteak): Iker Jimenez. “Richard y la maldicion de tanpa”.
1. saria (helduak): Nerea Echeveste. “Aplicados”.
2. saria (helduak): Irache Frias. “Ojala”.
Argazki lehiaketa
1. saria: Nerea Echeveste Relloso. “Vida equilibrada”.
2. saria: Antonio Girol Mediavilla. “Sobreviviendo”.



Sari banaketa ekitaldiaren amaierako argazkia, joan zen igandean. AIURRI



Trihas Gebre Urnietan bizi da azken urteotan. Lehen mailako kirol lehiari ekin nahi dio berriro. **GEBRE**

“Lasterketetara itzuli nahi dut, gehiagorako gogoa dudalako”

TRIHAS GEBRE GOI MAILAKO ATLETA

Denboraldi batez geldirik egon ostean, berriro korrika hasteko gogoa dauka Trihas Gebre distantzia luzeko atletak. Duela hamabi urte hasi zen Euskal Herrian lehiatzen

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Ez du bizi-lasterketa makala izan Trihas Gebre atleta urnietarrak. Oztopoz betetako bideetan, zenbaitetan, eta, bihurtunez jositako korrikaldietan, beste hainbatetan, ziztu bizian egin du aurrera, helmugatik helmugara. Bere kirol-ibilbideaz, sorterri duen Etiopiaz, amatasunaz eta etorkizuneko erronkez, datozen lerrootan, arnas luzez eta patxadaz, lasterka ibili gabe.

Oso gaztea zinen korrikalari iza-teari ekin zenionean. Zerk bultzatu zintuen?

Orain dela asko hasi nintzen korrika egiten. Pasa den apirilean, 32 urte bete nituen, eta hamabi urte besterik ez nituela ekin nion atletismoari; pentsa, duela bi hamarkada jada, zeinen azkar igarotzen den denbora! Etiopian hasi nintzen, beraz, klub batekin, eta bertan bizi nintzen, kirolarien egoitza baita. Txikitatik izan nuen oso argi atleta izan nahi nuela, oso gustuko izan baitut betidanik korri egitea. Dena dela, entrenamendu serioak egiteari, alegia, profesionalagoei, gutxi gorabehera, hamabost bat urterekin hasten zaio Etiopian.

Nire lagun batek animatu ninduen, berak jada korri egiten zuelako. Nire amak ez zuen nahi ni hasterik; bai, oster, nire aitak. Hamabost urterekin, esan bezala, lehiaketetan parte hartzen hasi nintzen, eta bi urteren ondoren, hamazazpi urterekin, Afrikako txapelduna izan nintzen Burkina Fason izandako oztopolasterketan.

Gerora, 5000m eta 10000m-ko lasterketetan trebatzeari ekin nion, baina ez nuen luze iraun bertan, izan ere, gazte-gazte etorri nintzen Euskal Herrira.

Hain justu ere, 2010. urtean zapaldu zenuen Euskal Herria lehenengo bider, Etiopia Utopia fundazioaren bidez, Behobia-Donostia lasterketan parte hartzeko.

Hori da, Angel Olanen nire herrikoa da, Wukro-koa. Jende gaztea ekarri nahi zuen hona berak, korri egiteko. Hala, birritan etorri ostean, hemen bizi nahi nuela erabaki nuen, eta, nire etxe sentitzen dut gaur egun. 2010. urtean, nirea izan zen Behobia-Donostia maratoni erdiko bigarren postua. Eta, hurrengo urtean, 2011n, 21 urterekin, garaile izan nintzen (1998. urtean Rocio Riosenek egindako errekor zaharra baino ia 50 segundo

azkarrago egin zuen: 01:08'47”), gaur egun, hamaika urteren ondoren, oraindik inork gainditu ez duen errekorra egiteaz batera.

Harrezkero, makina bat lorpen izan dituzu, baita hamaika marka hautsi ere.

Espainiako Txapelduna izan naiz sei aldiz jarraian krosean, baita Espainiako errekorrean ere maratoni erdian. Rio de Janeiroko Joko Olinpikoetan izan nintzen Espainiarekin 2016an, eta Europako lasterketa askotan zein Munduko Atletismo Txapelketan parte hartu dut.

Aitortza berezia dauka atletismoak Etiopian, ezta?

Jakina. Lantzat dute atletismoa askok, hots, korrikalariaren profesionalizazioa bilatzen da. Gehienek aukeratzen duten kirola da atletismoa, hemen, futbola bezala. Horrela, akademiak eta klubak oso sartuta daude horretan. Hemen ere badaude, esaterako, ia bi urtez egon nintzen Joaquin Blume egoitzan. Etiopian, teknika oso inportantea da eta gogor entrenatzen da; bertako egoera, bizitza, gainera, ez da batere erraza. Halaber, Etiopia altuera handian dago, 3000m-tan bizitzen eta egiten da korri. Atletismoa egiten hasi nintzen lehen bi hilabeteetan, ez zitzaidan arnasa ondo iristen; egokitu egin behar duzu, lehenik. Hemen, aldiz, itsas mailatik gertu gaude.

Non dago arrakasta lortzeko aukera handiagoa, Etiopian edo Euskal Herrian?

Afrikan, Etiopian. Jende askok jarraitzen duen kirola da, eta nazioartean maila handia du. Hemen, nirekin entrenatzen duen jendeak lanarekin uztartzen du korrika-saioa. Han, ez. Eta neu ere hemen espresuki entrenatzen aritu naiz, soilik.

Espainiako Estatuko iraupen-lasterkari onena zarela esan izan dute hedabideek. Nola jasotzen duzu hori?

Oso pozik nago, baina lasterketetara itzuli nahi dut, gehiagorako gogoa dudalako. Izan ere, beti izan ditut arazoak eta oztopoak; ama hil egin zen, oso gaitxo egon ondoren, eta anai-arreben gaineko zaintza arduratu behar izan dut, etxeko nagusia naizelako, baita hemen bizitzen nagoela ere. Hala, nire entrenamenduak eta lehiak utzi ditut familia laguntzeko. 2019. urtean, gainera, hara joan nin-



Trihas Gebre, ezkerretik hasita, bigarren. GEBRE



Gebre, bere haurrarekin, Urnietan. AIURRI

tzen bisitan eta aitak oso istripu larria izan zuen; denbora luzez hura laguntzen izan nintzen ospitalean. Ondorioz, kirol ibilbideari dagokionez, guztia galdu nuen. Nire ustez, horrelako oztopoak izan ez banitu, are urrugo ailegatuko nintzateke

Horrez gain, 2020an konfinamendua lausotzearekin batera, jaioterrira itzuli zinen. Baina, zenbait hilabeteetan, inork ez zuen zure berri izan, gerra piztu baitzen herrialdean. Nola bizi izan zenuen garai hura?

Martxa berriro ere jada hartuta neukan 2020an familia bisitatzera itzuli nintzenean Etiopia-ra. Gerra piztu zen eta urtebete pasatxo egon nintzen geldi, entrenatu gabe. Ezin zuen inork nirekin jarri harremanetan, basoan ezkutatuta geundelako. Etiopiako enbaxadak asko lagundu ninduen. Eta, orain, ez daukat nire familiaren berri, ez daukat beraiekin harremanetan egoterik, ez dakit ezer. Gainera, haurdun gelditu nintzen, eta horrek eragina izan du nire ibilbide profesionalean.

Bateragarriak al dira amatasuna eta goi mailako kirola?

Duela lau hilabete erditu nintzen. Eragina izan du, nire kasuan, amatasunak kirol-jardueran, horregatik ere ez naizelako berriro hasi lasterka. Gogorra da ama eta kirolari profesionala izatea, haurra zaindu behar dugulako nire senarrak eta biok... Baina burugogorra naiz, eta indartsua. Orain bi aste, oinezko ibilaldiak egiteari ekin nion, eta, aurki, korri egiten hasiko naiz. Biberioia ematen diot eta entrenatu bitartean nire bikotekideak zaintzen du haurra.

Oztopoak oztopo, imajinatzen al zuen hamabi urterekin hasi zen Trihas Gebrek hain urrutira iritsiko zenik?

Goia jotzeko entrenatzen dute korrikalari guztiek Etiopian, onenak izateko. Nire kasuan, orain berriro ahaleginduko naiz.

Eta non dago gailurrera iristeko sekretua?

Buruan. Gorputzaz gain, burua ere landu beharra dago.

Bidean, ezin ahaztu izen bat: Ricardo Jimenez.

Esker hitzak ditut berarentzat, beti izan baitut gertu; ez da soilik entrenatzailea; familia ere bada. Ezin aipatu gabe utzi ere Iñigo Eseverri, tartean, nire bizitzako arlo pertsonalean asko lagundu didalako. Madrilen izan ditudan prestatzaileek ere asko eman didate.

Nola antolatzen duzu astea, entrenamenduari dagokionez?

Orain geldirik nago, baina, berriki, martxan jarriko naiz. Ricardorekin hiru egunez entrenatzen dut, eta, gainerakoetan, bakarrik. Normalean, birritan entrenatzen dut egunero. Goizean, ordubetez egiten dut korri, gimnasia joan baino lehen; arratsaldean ere korrika-saioa egiten dut. Igandea atsedeen eguna da niretzat; baina, zenbaitean, Aieteko parkera joaten naiz Ricardorekin eta taldearekin. Madrilen aritzea ese oso gustuko dut, Casa de Campo toki ezagunean.

Zein da olinpoa distantzia luzeko korrikalari batentzat? Zein lasterketa zapaldu nahiko zenuke etorkizuenan?

Valentziako maratonia parte hartu nahi dut, maratoni erdian errekorra dudalako. Baina, era berean, Espainiako Maratoieko marka hautsi nahi dut, oraindik ez dudalako lortu. Bestalde, 2024, urtean Frantzia izango diren Joku Olinpikoetan egotea dut xede. Horretarako prestatuko naiz.

Kadete eta Junior mailako neskak, Valladolid aldean

TXIRRINDULARITZA Zuriarrainek, Etxarrik, Arangurenek eta Navarrok bero handiarekin lehiatu behar izan zuten

Erredakzioa ANDOAIN

Andoaingo.eus webgunean lasterketaren lekukotza utzi dute Andoaingo Txirrindulari Eskolako kideak. Bero handia egite zuen Valladolid aldeko lurretan eta bero-kolpearen ondorioz an-

bulantziak hara eta hona ibili ziren. Hori dela eta, junior mailako lasterketak etenaldi bat baigo gehiago izan zituen. Kadete mailan Etxarri podiumera igo zen. Paula Ostiz nagusitu zen, ihesaldian.

Sailkapena, junior maila

1. Lucia Ruiz (Rio Miera)
2. Laia Bosch (Costa Brava)
3. Lucia Garcia (Costa Brava)
27. Izaro Zuriarrain (Andoain)

Sailkapena, kadete maila

1. Paula Ostiz (Lacturale)
2. Izaro Etxarri (Andoain)
3. Leyre Almena (Hyundai Car)
7. Irati Aranguren (Andoain)
36. Intza Navarro (Andoain)

Kadete mailako mutilak hiru eguneko Txuma memorialan parte hartzen aritu ziren.



Paula Ostiz irabazlearen ondoan ageri dira Izaro Etxarri eta Leyre Almena. ANDOAINGO



Eskalada gero eta herritar gehiago erakartzen duen kirol diziplina da, izan mendian, edo barruko instalakuntzatan. AIURRI

Boulder ekipamendua Urnietako kiroldegian

ESKALADA Zabalik da kiroldegi berria, eta guneak eskaintzen dituen ohiko berrikuntzez gain bada orain arte Urnietak eskaintzen ez zuen aukera polita: boulderra. 12,5 metroko bi horma ditu, eta 3 metroko altuera, zailtasun anitzekin



Kiroldegiko boulderra Azpeitiko Natural Progression dendako Jose Luis Urkizu 'Beltxa' aditu azpeitiarrak osatu du. AIURRI

Andoni Urbistondo URNIETA

Kiroldegia eraikitzeke lanetan atarian Udalak herri elkartei galdetu zien zein behar, ekipamendu izan beharko lukeen kiroldegi berriak. Zanpatuz mendi taldeari egin zitzaion kontsulta, eta mendi taldeak boulder edo eskalada gune bat atontzeko eskaera egin zuen.

Zergatia sinplea da. Eskalada gero eta herritar gehiago erakartzen duen kirol diziplina da, izan mendian, edo barruko instalakuntzatan. Udako lehen egun hauetan Santa Barbarako haitzak jendez mukurru daude, baina Urnietako inguruko eskalada edo boulder ekipamendua ere bai. Izan Donostiako Pio Baroja kiroldegian, edo Martuteneko Boulder Factory instalakuntzetan. Babespean dauden instalakuntzak ezinbestekoak dira Euskal Herrian, eguraldia eurtsua denean ezinezkoa delako eskalada aire librean egotea. Urnietako kiroldegiko boulderrak beste aukera bat emango die eskalada zaleei urnietarrei, eta inguruko herrietako zaleei.

Urnietako kiroldegiko boulderra Azpeitiko Natural Progression dendako Jose Luis Urkizu 'Beltxa' aditu azpeitiarrak osatu du, Zantatuz taldeko Mikel Martiarena eta Mikel Legarreta kideekin elkarlanean. Lauki erdi baten itxura dauka, eta alde bakoitzak 12,5 metroko luzera. Altuera, aldiz, hiru metrokoa da gehienez, eta horrek ekipamendu edo sokarik gabe aritzea ahalbidetuko die eskalada zaleei, hormaren behealde guztia koltxoiekin hornitua egongo baita, erorketak samurtzeko.

Boulder edo instalakuntza barruko eskalada bizitzan ari den gorakadaz analisi hau egiten du Martiarenak: "Fisikoki eta

mentalki oso kirol aberatsa da: hankak, besoak, gerria... gorputzeko atal asko lantzen dituzu, eta burua ere bai, erronkak betetzea, edo bideren bat kateatzeko buruz indartsua izan behar baita. Eguraldiaren baldintza ere hor dago. Udan hainbeste ez, baina uda ostean, eguraldia okertzen denean, eta egunak moztu, boulderra erabiltzea aukera ezin hobea da eskalada teknikan hobetzen jarraitzeko".

Martiarenak eskaladan beste kirol diziplina askotan gertatzen ez dena gertatzen dela nabarmentzen du, diziplina inklusiboa dela: "Alegia, elkarrekin jardun daitezkeela haurrak, gazteak edo hain gazteak ez direnak, eta mutilak eta neskak". Boulderraren erabileraren baitan, edo erabiltzaileen eskaeren baitan, Zantatuz mendi elkarteak ikastaroak eskaintzeko aukera ztertuko du, etorkizunean. Etor-kizunean argituko da, era berean, eskaladak kiroldegian beste guneren bat izango duen edo ez, bigarren hori ohiko rokodromoen itxurakoa, eta sarrera nagusiaren ondoko horman eraikiko litzatekeena.

Erabilera eta ordutegia

Boulderra erabiltzeko kiroldegiko sarrera ordaindu beharko da, beste bezero guztiak bezala, baina Udalak bazkide txartela egiteko hainbat aukera ematen du, eta horri esker, boulderraz gain, hainbat erabilpen egiteko aukera sortzen da, diru gutxiago ordainduz. Salneurrien zerrenda webgunean kontsulta daiteke.

Kiroldegia asteke egun guztietan egongo da irekia, goizeko 08:30tik 22:00ra aste egunez, eta goizeko 00:30tik 21:00ra larunbat, igande eta jaieguneetan.



Urnietako
udala



Ponce antolatzailea, Jauregi II, Alkorta, Ponce, Loidi II, Setien eta belauniko Jauregi II, Loidi I, Usandizaga, Amaia eta Edurne.

Iturzaeta memoriala, lagunartean hasi eta buka

PALA Komunitate izaera sendotu eta herri giroa areagotu egiten da horrelakoetan. Maiatzean hasita, Iturzaeta memorialak herrikide asko elkartu ditu Sorabillan. Lagunarteko giroan hasi eta amaitu da txapelketa

Mikel Arberas ANDOAIN

Finalak aurrera egin ahala Sorabillako pilotalekua eta ingurua jendez betetzen hasi zen. Igande arratsaldean afari-apustua, 3-4. postuak eta bi final jokatu ziren. Txapelketa osoan zehar adiskidetasun giroa nabarmendu da.

Afariaren apustuan Iñaki eta Estebe Lopez de Munainek Mikel Agirre eta Joxe Mari Saga-

seta gainditu zituzten (25-16). Hirugarren eta laugarren postuak erabakitzekeo partidaren Setien-Usandizaga bikotea nagusitu zen, Otermin-Eskuderorekin lehia estuan ibili eta gero (24-25). Partida ikusgarria eta emozioz beterikoa izan zen.

Emakumezkoen finalean ere emaitza estu-estua izan zen. Amaia-Edurne bikotea nagusitu

zen tanto bakarragatik, Elixane eta Alaine ahizpei irabaziz (24-25).

Gizonezkoen finalean, Loidi anaiak jaun eta jabe agertu ziren Ponce-Alkortaren aurka (25-18). Final horretan nabarmentzekoa izan zen bikote gorridunen lagun-taldeak jarri zuen giro aparta. Amaiera arte lagunak animatzen aritu ziren.



Mutilen finalean loiditarrak nagusitu ziren. AIURRI



Nesken finala estu-estua izan zen. AIURRI



Gorritxoak izan zen finaleko protagonistak. Giro ederra sortu zuten. AIURRI

Kontzejupekoa eta Goiburukoa, hurrengo hitzorduak Andoain

PILOTA Kontzejupeko partidak hasi dira eta finala San Juan jaietan jokatu da. Jarraian dator Goiburukoa

Mikel Arberas ANDOAIN

Ikasturte amaieran herri mailako pilota lehiak bata bestearen atzetik kateatzen dira. Sorabillan Iturzaeta memoriala amaitu eta berehala hasiera eman diote Kontzejupeko esku pilota txa-

pelketari. Lehen partidatan ikusmina sortu da. Oso giro berezia sortzen da udaletxe arkupeko frontoi txikian. Datozen egunetan jokatu da txapelketa osoa, San Juan jaiei baitan jokatzen baitira finalak.

Eskuz binaka Goiburun

Ekainaren 27an hasi eta uztailaren 8an amaituko da Andoaingo Gaztetxeak antolatzen duen txapelketa. Partidak astean zehar jokatu dira arratsaldeko 17:00tan hasi eta 20:30ak arte. Parte hartu nahi duenak izena emateko aukera dauka ekainaren 24ra bitarte, honako tokietan: Lanbroa, Irunberri, 97, Txuribeltz eta Gaztetxea. Bikote bakoitzak 20 euro ordainduko du. Opari modura, txapelketako kamiseta bat jasoko du.



Lehen kanporaketak hasi berri dira Kontzejupean. AIURRI



Goikoetxea eta Ansa urnietarrak, aurrez aurre. AIURRI

Sagardo Txapelketaren finala, astelehenean Galarretan

ERREMONTEA Ansa II-Juanenea eta Urriza-Zubiri bikoteek jokatu dute finala

Mikel Arberas ANDOAIN

Urriza txapeldun handia eta Ansa Urnietako aurrelaria berriz ere Sagardoaren Txapelketaren finalean elkarren aurka arituko dira. Ekainaren 20an izango da, astelehenearekin, 18:00tan hasita, Galarretan. Gauez ETB1ean ikusi ahal izango da.

Setien-Oialume Zar

Lehenengo finalaurrekoan Setien sagardotegiko Ansa eta Juaneneak 25-30 irabazi zuten Oialume Zarreko Goikoetxea V eta Barrenetxearen aurka. Beste behin, Oialume Zar finalerako atarian geratu da. Ansa eta Juanenea hasieratik nagusi izan ziren, nahiz eta partidu lehiatua izan. 2-4 aurreratu eta abantaila mantentzen saiatu ziren, 7-10era arte. Orduan, urdinek bost tanto jarraian egin zituzten eta zortzi tantoko abantaila lortu zuten, 7-15. Abantaila man-

tentzea lortu zuten arren, gorriek distantzia murriztea lortu zuten. Hiru tantora hurbildu ziren 20-23, baina ez ziren haratago joan. Ansa eta Juaneneak abantaila handitu zuten sei tantora, 23-29 eta partidua itxi zuten 25-30.

Tanto oso gogorrak jokatu ziren eta partida ikusgarria izan zen. Ansa izan zen zenbaki onenak lortu zituen, 18 tanto eta hiru akatsekin. Nagusi izan zen aurrelarien lehiari eta oso ongi aritu zen. Goikoetxea urnietarrak zazpi tanto eta hiru akats egin zituen. Atzelarien lehiari Barrenetxeak partida esanguratsua egin zuen 14 tanto eta bi akatsekin, baina Juaneneak ongi heldu zuen eta ez zuen ia akatsik egin. Zazpi tanto eta akats bakarra.

Larre Gain-Petritegi

Bigarren finalaurrekoan Urrizak eta Zubirik 30-22 irabazi zuten Segurola eta Azpirozaren aurka.



Altuna eta Rekalde. GAZTELEKU

Andoain eta Erreterria, Herriarteko finala

PALA Larunbat honetan Olaberrian jokatu da Andoain eta Erreterriaren arteko finala, 12:00tan

Erredakzioa ANDOAIN

Beste behin ere Gipuzkoako onenen artean daude andoaindarrak. Pala motzean Rekalde eta Altunaren nagusitasuna nabarmena izan zen eta alde handiagatik irabazi zuten (40-25). Hurrengo partida, finala, Ore-retaren aurka jokatu dute. Zortzigarren txapelaren bila abiatuko dira.

Larruzko paletan, Ponce eta Iradi andoaindarrak tanto bakarragatik galdu zuten Telmo-Brosa bikote donostiarraren aurka (35-34). Ezinbestekoa izango da hurrengo partida irabaztea, finalera sailkatu nahi badute.



Pump Truck gunea, Miranda pasealekuan. AIURRI

Martxan da kirolgune berria, aire librean

PUMP TRUCK Monopatinarekin edo bizikleta gainean aritzeko gunea zabalik dago Karrika auzunean

Erredakzioa ANDOAIN

Skate gunea eta Pump truck gunea bana du Andoaingo udalerriak, aire librean kirol jarduerara ez hain klasikoak egiteko aukera eskainiz. Pump Truck gunea zabaldu zutenetik erabiltzaileak ez dira falta izan. Aurkezpen ekitaldian, Kiroltako zinegotzi Petri Romerok adierazi zuenez

“eguraspean egindako kirola bultzatzen jarraitzen dugu, egurapeko gunek eta natura betean daudenak erabiliz, modu horretara andoaindarrak eskainiz aisiarako beste aukera batzuk”.

Kirolgune berria Karrikan dago. Miranda pasealekuan, Algodonerako Emakumeen plazaren ondoan.



Udal ordezkariak eta Udal teknikariak, aurkezpen ekitaldian. AIURRI

GALARRETA JAI ALAI | SARRERA 10€




FINAL HANDIA

EKAINAK 20 ASTELEHENA | 18:00ETATIK AURRERA

URRIZA • ZUBIRI vs ANSA II • JUANENEA • SETIEN













HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 16

URNIETA Antzerkia
Emakumeen Jabekuntza Eskolaren amaierako saioa. Urnietako bertso eskolako hainbat emakumeek bertso saioa eskainiko dute.
17:30, Lekaio. Dohainik.

ANDOAIN Erakusketa
"Euskadiko urak" argazki-erakusketa ikusgai dago. Urak, ibaiak egoera onean izateak duen garrantziaz kontzientziatu eta sentibilizatu nahi du.
Azken eguna. Goikoplaza.

ANDOAIN Erakusketa
"Ez normalak, ez otzanak" erakusketa. Ordutegia ohikoa izango da. Bisitaldi gidatuak ekainaren 18an, 20an, 22an eta 29an. Izena emateko telefono-zenbakia: 676 567 724.
18:30, Bastero.

ANDOAIN Kanpaina
Salkinek eta Udalak abian jarritako erosketa-bonoak baliatzeko aukera dago, ekainean zehar.
Azken eguna: Ekainak 30.

ANDOAIN Erakusketa
Miguel Balliache artistaren "Bibrak" izeneko erakusketa, azken lau urteetan egindako lanak baliatuta. Margolanak, eskultura eta zeramika.
Uztailaren 2ra arte. Bastero.

OSTIRALA 17

URNIETA Haur ekitaldia
"Piztu! EmakumeON energia", haur antzerki emanaldia. Euriarekin, Egape ikastolako jolastoki estalian.
18:30, Etxeberri plaza.

ANDOAIN Kontzertua
Neomak emakume taldearen emanaldia.
19:00, Bastero.

IGANDEA 19

URNIETA Antzerkia
"Zenbatgarrena!" antzezlan Udal antzerki tailerraren eskutik.
19:00, Sarobe. Dohainik.



Spining-a, aukera zabalaren artean. AIURRI

ANDOAIN Ikasturte berrian izena emateko aukera, Allurralden

Hainbat berrikuntzekin dator kirol jardueren eskaintza; besteak beste, haurdun dauden emakumeei begirako fitnessa eta 65 urtetik gorakoentzako dantza-saioak. Ohi bezala, eskaintza zabala Allurralde kiroldegian.
Ikasle berrien kasuan, izen-ematea ekainak 20-uztailak 3 bitarte zabalik.

ASTELEHENA 20

ANDOAIN Entseguak
Andoaindarra elkartearen danborrada prestatzeko entseguak ekainaren 20an eta 22an.
19:00, La Salle Berrozpe.

ASTEARTEA 21

ANDOAIN Entsegu orokorra
San Juan bezperako danborrada antolatuta du Agustin Leitza elkartek. Ekainaren 25ean aterako dira kalera.
19:00, Agustin Leitza elkartea.

Azelainen emanaldia

Larunbat honetan, ekainak 18, Azelain ballet taldeko ikasleek ikasturte bukaerako emanaldia eskainiko dute. 17.00etan hasiko da Bastero Kulturguneko auditorioan. Bi urtez emanaldirik eskaini gabe izan ondoren, apirilaren 2an Donostiako Kontxan egiten den emanaldi ezagunean parte hartu zuten. Sanjuanetan ere ariko dira.

ANDOAIN Axeri dantza
Azken entseguak, San Juan jaietan irten aurretik.
19:00, Ondarreta ikastetxea.

OSTEGUNA 23

ANDOAIN San Juan sua
Udalerrri mailan, Goikoplazan eta San Juan plazan. Hainbat auzotan deialdi gehiago izango da.
Iluntzean hasita.

ANDOAIN Kontzertua
Zetak eta DJ Oihan Vega, San Juan jaietan hasieran.
Nafarroa plaza.



AZELAIN

ZINEMA



ANDOAIN
BASTERO
Jurassic World: Dominion
Larunbata, 18.
19:30, 22:00.
Ig., 19. 19:30.
Astelehena, 20.
19:30, 22:00.

SINOPSISIA



JURASSIC WORLD: DOMINION
Zuzendaria: Colin Trevorrow. **Aktoreak:** Chris Pratt, Bryce Dallas Howard, Laura Dern, Sam Neill, Jeff Goldblum, Isabella Sermon...
Herrialdea: AEB. **Generoa:** Abenturak. **Iraupena:** 146 minutu.
Urtea: 2022.

Intrigaz beteriko filma

Nublar uhartea suntsitu eta lau urtera, dinosauroak mundu osoko gizakiekin bizi dira orain. Oreka hauskor horrek etorkizuna birmoldatu eta gizakiek

harraparien gailurrean jarraituko duten zehaztuko du. Dinosaurioei buruzko ekoizpen berriena, zinema denboraldiari amaiera emateko.

MERKATU TXIKIA


MINTZALAGUNA
Andoaingo emakume pentsioduna hizkuntza laguntza edo mintz-lagun bila dabil: Gaztelaniaz eta ingelesez / danesez aritzeko. Pertsona irekia, eta jendea ezagutzeko gogoarekin: reflexologist45@yahoo.co.uk

ENPLEGUA
Pertsona euskaldun bat behar dugu Lanbroa Tabernan lan egiteko. Interesatuak kontaktuan jarri lanbroataberna1@gmail.com-en edo **659 039 922** telefonora deituta.


TELEFONO-ZENBAKIAK

OSASUN ALORREKOAK
Andoain: 943 006 670.
Urnieta: 943 006 680.

ZORION AGURRAK



ANDOAIN Zorionak Malen!
Malenek ekainaren 18an 10 urte beteko ditu. Ondo pasa! Asko maite zaitugu! Etxekoak.



ANDOAIN Iosu Guirado Alkorta
Dagoeneko 7 urte bete ditu gure txapeldunak. Etxekoen partez muxu erraldoia eta ederki pasa! Muxu pottolo bat.



El Drogas taldeak jendetza erakarri zuen Andoaingo Rock Jaialdira. AIURRI

Garagardoa amaitu zeneko Rock jaialdia

Rock musika eta garagardoa elkar lotuta doazen osagaiak dira, eta aurtengoan garagardoa rock jaialdia amaitu aurretik agortu zen. Jaialdiak izan zuen arrakastaren neurgailuetakoa da

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Rock Jaialdiak bestela entzungo ez genituzkeen musika proposamenak ezagutzeko aukera bikaina eskaintzen dio musikazaleari. Eta horrexegatik Nafarroa plazara arratsaldetik goizalderarte hurbiltzea esperientzia aberasgarria da. Nazioarteko proposamen interesgarriez gozatzeko aukera izan zen, baina bazen talde bat gehiengoaren ahotan zegoena eta hori Enrique Villareal nafarrak zuzentzen duen

El Drogas taldea da. Haren ezi-zena da, eta 'Barricada 40' biraren baitan iritsi zen Andoainera. Plaza abestuz eta dantzan jarri zuen. Jaialdia bere gorenera iristearekin baterahasi zen garagardoa amaitzen. Txosnatan lehenik, ondoko tabernetan ondoren, eta azkenerako bi kale atzera zabaldu zen garagardo frexkoa lortzeko rockzaleen saia-kera. Jaialdiak izan zuen arrakastaren neurgailuetakoa da edari preziatua amaitu izana.

Eguerditik gauerdira bitarte rock doinuen baitan dantzan

Aita Larramendi ikastolako eta La Salle Berrozpe ikastetxeko ikasturte amaierako jaiak egun berean izan ziren, eta horrek eragina izan zuen eguerdiko emanaldietan behar baino ikusle gutxiago elkartzeko garaian. Oskar Uribesalgo antolatzaileak aurreko Aiurrin iragarri bezala, hiru emanaldi bikain izan ziren. Ramada Inn Zumea plazan aritu zen, Natural Project Juanita Alkain plazatzon eta John Dealer and the Coconuts Goikoplazan.



Natural Project andoaingarrak Juanita Alkain plazatzon aritu ziren. AIURRI



John Dealer and the Coconuts Goikoplazan aritu zen. AIURRI